

A modo de conclusión, a lo largo del quinto y último capítulo, San Martín resume el objeto de estudio de la antropología social. Con este objetivo recoge y amplía la definición dada por un comité de antropólogos en 1968 (Cfr. Kuper, A. (1973) *The British School*, Allen Lene, Londres, p. 259, citado en la p. 201 del libro de San Martín): La antropología social “es el estudio del comportamiento humano en un contexto social desde una perspectiva integrativa, comparativa y observacional”. San Martín modifica ligeramente esta definición añadiendo el “rodeo antropológico” (que nos ayuda a descubrir la esencia de la sociedad y nos libera de los prejuicios etnocéntricos) y destacando la observación participante como elemento anterior a la integración y a la comparación.

En definitiva, Javier San Martín nos proporciona en este libro varias y valiosas claves para superar el relativismo cultural, así como para construir una antropología filosófica desde la antropología cultural. Se trata de un libro muy interesante, no sólo para filósofos y antropólogos, sino también para todo aquél que quiera encontrar argumentos precisos para rebatir el relativismo cultural.

María Jesús Úriz Pemán



URKIA, Joxemari

Medikuntza bere historian: gizartea, gaixotasuna eta osagilea

[Amorebieta] : Erroteta, 2009. – 315 or. ; 21 cm. – ISBN: 978-84-92413-37-9.

Liburu honen egilea, Joxemari Urkia Etxabe doktorea, donostiarra da. 1981. urtean Medikuntzako lizentziatura eskuratu zuen eta handik bi urtetara, 1983an, Doktoretza, biak Salamancako Unibertsitatean. Lizentziaturatu bezain laster Medikuntza Historia klaseak ematen hasi zen, hasiera batean Salamancan bertan, gero Euskal Herriko Unibertsitatean.

Euskal Herriko Medikuntza Historia Mintegiko fundatzaileen artean egon da, eta 1991z geroztik Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko partaidea, eta elkarre barruan goi-goiko karguak izan ditu: idazkari, zuzendari eta lehendakari, besteak beste. Gaur egun, Gipuzkoako arloko zuzendaria da.

1990 eta 1998 artean Eusko Ikaskuntzako Medikuntza saileko koordinatzailea izan zen. 1991n Euskal Medikuntzari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen “Euskal Medikun-

tzaren Estanpa Historikoak” izenburupean. Ekitaldi hartan Joxemariaren esanetan bi helburu zeuzkan:

Nik nainuke Jardunaldi hauetan bi helburu lortu. Lehenengoz herriak jakin dezala ze ikerketak egon diran orain arte:Hortza hitz egingo dute maisu ospetzu askok Barriola eta Granjel-ekin hasita, eta beste hainbeste irakasle Salamanca, Valladolid eta Nafarroa-tik etorrira, gai hauetan lanetan dabiltzatenak. Eta bigarren, orain irikitzen dugun beste alor bat ikerketarako, hau da “Industrializazioa eta sanitatea” gai berri bat eta gai hortan naiduten danak parte hartu dezakete. (JM Urkia. “Aurkezpena”. Cuadernos de Sección Ciencias Médicas 2. Zenb. 1992, 19 or.)

Bere argitalpenak anitz izan dira. Lehenengoa “Historia de los Bañerios y fuentes minero-medicinales de la Provincia de Guipúzcoa”, Bilbao, 1983 izan zen, bere dokto-retza-tesian oinarrituta, gero gai horri buruzko artikulu eta liburu batzuk argitaratu zituen, haien arteko aipagarriena, “Los Bañerios Españoles”. Cestona, Europa Artes Gráfica, 1998, Rodríguez Sánchez eta bera koordinatzaile izanik. Gai desbendinei buruz liburu asko egin ditu. Biografia batzuk, hala nola, “Vida y Obra del Doctor Eizaguirre” Bilbao, 1984 idatzi zuen, 2004an berriz, “Vida y Obra del Doctor José Carrasco y Pérez-Plaza 1849-1942. Donostia-San Sebastián, Euskaerriaren Adiskideen Elkarte argitaratukoa. José M^a Placerekin “El cuarto de Socorro de San Sebastian Origen y desarrollo (1881-1936). Kutxa Fundazioa, Donostia San Sebastian, 1993an argitaratu zuen eta Gipuzkoako Elkargoko ehun urteurrena ospatzeko “Cien Años de Medicina en Gipuzkoa 1988-1999” Kutxa Fundazioa Donostia San Sebastián 1989, idatzi zuen. Bere bi azken liburuak “Barriola íntimo. Un humanista vasco en su Diario (1928-1998) Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Zarautz 2007, eta “El mundo vasco en Gregorio Marañón: en el cincuentenario de su muerte 1960-2010”, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 2010ean izan dira.

Beraz, kultur arloan urte asko darama eta, zer esanik ez, Medikuntza Historian irakasle gisa. Urte oparo horien ondorioa da aurkezten dugun liburu hau: “Medikuntza bere historian. Gizartea, gaixotasuna eta osagilea”. Hau medikuntza historiari buruz euskaraz argitaratzen den lehenengo liburua da, eta azpimarratzekoa da.

Egileak liburuan azaltzen duen moduan, medikuntzaren iraganean ezagutzak medikuari bere betebeharrak sendatzaileak betetzen lagunduko diola ukaezina da. Medikuek, profesional gisara trebatuko duten ezagutzen jatorria, iturburua eta genesisia ezagutu behar ditu eta baita erabili behar dituen edo erabiliko dituen teknikena ere. Eta historiak bakarrik eman diezaioke ezagutza hori (21 or.)

Medikuntzaren Historian bi aldi nagusi bereizten ditu, Antzinako eta Modernoa deitzen direnak. Antzinako Medikuntza eta Medikuntza Moderno arteko muga, gutxi gora behera, K.o. XV. Mendearen azkeneko hamarkadetan kokatzen da (23 or).

Antzinako Medikuntza garaiak, beraz, gizakia mundura sortu zenetik K.o. XV mendera arte iraun zuen. Hiru etapatan sailka ditzakegu: Teknika Aurreko Medikuntza, Medikuntza Heleniarra eta Erdi Arokoa. Etapa bakoitzean, jakintza medikoa eta gizarteak gaixotasunaren aurrean izan duen jarrera liburuan azaltzen da (24-26 or.).

Teknika Aurreko aldian, gizakia gaixotzea sinismenarekin lotzen zen (pentsamolde majiko-erreljiosoak); Aldi Heleniarrean, sinismenak alde batera utzi eta gaixotasunaren gaineko ikuspegi arrazional edo zientifikoa sortu zen, eta, azkenik, Erdi Aroan, oso prozesu konplexu baten bitartez Europako mendebaldeko bizimodura iritzi ziren, bai medikuntzaren gaineko jakintza heleniarra, baita kultura greko-erromatar osoa ere (28 or.).

Lehen aipatu dugun bezala, Antzinako Medikuntzak denbora asko iraun du. Aro Modernoak, berriz, oso mende gutxiko iranauldia izan du (K.o. XV. mendearen bukaeratik XI. mendera arte). Hala eta guztiz ere, Aro horren aberastasuna eta konplexutasuna handiak dira, zeren eta Aro Modernoan egungo Medikuntzaren ideologiaren oinarriak elaboratzen baitira.

Medikuntzaren Historiaren Aro Modernoa bost etapetan zatitzen da. Errenazimenduko Medikuntza (XV. mendearen bukaera eta XVI. mendearen artean), Barroko Medikuntza (XVII. mendean), Medikuntza Ilustratua (XVIII. mendean) eta XIX. mendeko Medikuntza (XIX. mendean eta XX. mendearen lehenengo uretak). Hainbat testutan, esate baterako Laínen testuetan, azkeneko etapa hori bi faseetan zatitzen da; fase erromantiko bat eta fase positibista bat bereizten dira.

Errenazimenduko etapan, Medikuntza, Europako bizitzak eta kultura osoak bezala, transizio etapa bat bizi izan zuen. Erranazimenduko kultura guztietan “antzinakoa” eta “moderno” batera existitzen dira. Barroko etapan “modernoaren” garaipena jada agerikoa zen, nahiz eta “antzinakoa” guztiz desagertu ez zen, nolaiteko indarra zuelako. Etapa Ilustratuan, Medikuntzaren bira moderno horretan sakondu zuten edo bira hori finkatu zuten. Horrela, bere Antropologia, Klinika eta Terapeutika jakintzak antzinako oinordetzatik, hori da, greko edo greko-islamiarretik, era nabaria urrundu ziren. Halere, XVII. mendearen bukaeran, etapa ilustratua bukatu zenean, antzinako medikuntza tradizionalak oraindik ere bizirik jarraitzen zuen nolabait. Etapa Erromantikoa/Positibistan, hori da, XIX. mendean zehar, medikuntza europarra Erdi Aroko oinordetzatik banandu zen, benetan eta behin betiko. Gertakari horrek izugarriko garrantzia izan zuen, zeren eta egungo medikuntzaren oinarriak garai hartan elaboratu baitziren (161 or.).

Medikuntza Modernoaren azaltzeko, egileak bi kapitulu handi bereizten ditu: “Medikuntzaren gaineko jakintzak” eta “Gizartea eta gaixotasuna”. Lehenengo atalean Antropologia, Gaixotasunaren interpretazioa eta Enpirismo klinikoa aipatzen ditu.

“Antropologia” izenburupean medikuak giza errealitatearen gainean duen ezagutza biltzen da. Horretan bereizmen batzuk egiten dira: morfologia ezagutza (anatomia eta histologia), fisiologia, psikologia eta enbriologia ezagutzak. “Gaixotasunaren interpretazioa”, giza gaixotearen gaineko teoriak eta gaixotasunaren ideologia oinarria edo sustraia azaltzen dira. Eta azkenean “Enpirismo kliniko” atalean, medikuek dituzten gaixotzeko modu zehazten gaineko ezagutzak eta zendatzeko erabitzen diren baliabideak aipatzen dira. Gai horiek azaltzeko egileak hiru zatitan banatzen ditu medikuaren ezagutzak, hots: medikuntza klinika, kirurgia eta espezialitateak (163-164 or.).

Eta azkenean “Gizartea eta gaixotasuna” izenburu orokorrekin hurrengo gaiak aztertu ditu Urkia Doktoreak:

Gizarte modernoak gaixotasunak sortutako medikuntza arazoak nola bizi izan dituen, XVI. mendetik gaur egun arte, gaixotasunak zer eragin izan duen gizartean, alegia, demografia inpaktua (epidemia larriak, epidemia prozesuak) eta gizarteak gaixotasunaren aurrean babesteko edo horren kontra borrokatzeko zere gin izan duen, medikuaren lanean kolaboratuz edo kasu batzuetan lan hori ordezkatuz, herri medikuntzaren kasuan bezala (299 or.).

Liburu hau Medikuntza historiari buruzko zenbait liburutan oinarritu egin da, besteak beste, Pedro Laín Entralgoren Medikuntza Historiari buruzko liburuetan –bai 1954an argitutako “Historia de la Medicina Moderna y Contemporánea” izenburukoan, bai 7 liburu osatutako “Historia Universal de la Medicina” bilduman–, 1982an argitaratutako Luis Sánchez Granjelen “Historia general de la medicina española” izenburukoan, 1985ean argitaratutako Juan Riera Palmeroren “Historia, Medicina y Sociedad” izenburukoan eta

1969an argitaratutako José María López Piñeriroren “Medicina, Historia y Sociedad” liburuan.

Liburu honetan Urkia Doktoreak Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Historia klaseetan ematen dituen ikasgaiak bildu ditu, eta nire ustez hau beharrezkoa zen, medikuntza euskaraz ikasten ari direnentzat, batez ere.

Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi